

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Itzulpen, zuzenketa eta interpretazioko bi teknikari lanpostu betetzeko hautaketa prozesuan karrerako bi funtzionario izendatzea

Arabako Batzar Nagusietako Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an egindako bilkuran, honako hau erabaki du:

Lehenengoa. Xabier Zalbide Etxeberria eta Aitor Erdozia Abasolo karrerako funtzionarioak izendatzea, Arabako Batzar Nagusietako itzulpen, zuzenketa eta interpretazioko bi teknikari-lanpostu betetzeko hautaketa prozesuan, 2024ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako ezaugarri hauekin:

Taldea: A1.

Kategoria: Itzulpen, zuzenketa- eta interpretazio-teknikaria.

Zerbitzuak emateko lekua: Arabako Batzar Nagusietako Idazkaritza.

Destino-osagarriaren maila: 23.

Berriazko osagarria: Batzar Nagusietako Mahaiak onetsitako lanpostu-zerrendan adierazitakoa.

Lanaldia: Batzar Nagusietako Mahaiak Ganberako langileentzat ezarritakoa. Zerbitzu-beharrerengatik prestasun askea dakar berez lanpostuak.

Hizkuntza-eskakizuna: 4 (TG).

Nahitaezko ITTxartelak: Microsoft Word 2010 Aurreratua, Microsoft Excel 2010 Aurreratua, Microsoft Access 2010 eta Microsoft Outlook 2010.

Lanpostuaren eginkizunak:

Honako eginkizun hauek beteko ditu: euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenak egitea (jarduera parlamentarioari dagozkion testuak zein administrazio parlamentarioak sortutako testuak), bilkura eta ekitaldi parlamentarioetako hitzaldiak interpretatzea, aholkularitza linguistikoa ematea barne-dokumentaziorako, itzulpenaren eta zuzenketaren zeregin osagarrietan parte hartzea (terminologia, erredakzioa, informatika), bai eta esleitzen zaizkion antzeko beste zeregin guztiak.

Bigarrena. Argitara bedi erabaki hau ALHAOn, Arabako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean, Arabako Batzar Nagusien webgunean (<https://www.jjggalava.eus/es/portal-empleo-publico>) eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen webgunean (www.ivap.euskadi.eus).

Hirugarrena. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, Arabako Batzar Nagusietako Mahaiaren aurrean Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluaekin lotuta; edo egoki irizten zaion eta zuzenbidean bidezkoa den beste edozein.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 27a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA